



PARTE-HARTZAILEAREN FITXARI ETA MEREZIMENDUEN BAREMAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA ARGIBIDEAK

A).PARTE-HARTZAILEAREN FITXA

Fitxa ikusi ahal izango da onartutako en eta merezimenduen behin-behineko zerrenda argitara ematen den datatik eta zerrenda horren kontra erreklamazioak aurkezteko epea bukatu arte, ez gehiago (hau da, **2022ko otsailak 17ra arte**).

Parte-hartzaileek <https://hezigunea.euskadi.eus> helbidean izango dute erreklamazioa egiteko aukera. (Horretarako, kontsultatu erreklamazioen atala)

Fitxa honek bost multzo ditu.

A.1.- Identifikazio-datuak.

Parte-hartzaileak eskaeran betetakoarekin bat etorri behar dute datuek, oposizioa gainditu zuen urtea eta kalifikazioa izan ezik, Administrazioak ofizioz sartzen dituenak.

A.2.- Puntuazioaren aukeraren datuak.

Parte-hartzaileak eskaeran adierazitako baremoaren aukera agertzen da. Ondorengo puntuak hartu behar ditu kontuan:

A) Parte hartu zuen azken lehiaketaren (2010/2011koa edo geroagokoak) "puntuazioari eustea" aukera selekzionatu bazituen, parte hartu zuen azken lehiaketaren I. eranskinetako 2., 3.1., 3.2., 4.3., 5. eta 6. ataletan izan zituen puntuazioekin jarraitzen du; Administrazioak ofizioz gaurkotu ditu I. eranskinetako 2., 5. eta 6. ataletan ofizioz dauden merezimenduak, parte hartu zuen azken lehiaketan eskaerak aurkezteko epeak bukatu ondoren hobetutako merezimenduak badira; kasu bakoitzean I. eranskinetan adierazitakoaren arabera egin da I. eranskinaren gainontzeko atalen merezimenduak barematzeko prozesua (ofizioz ez doazen merezimenduak baloratzeko, behar diren egiaztagiriak aurkeztu behar izan ditu).

B) Parte hartu zuen azken lehiaketaren ondorengo "merezimendu berriak gehitzea" aukerak, 2., 3.1., 3.2., 4.3., 5. eta 6. ataletan azken lehiaketan lortutako puntuazioarekin ados egon arren, parte hartu zuen azken lehiaketan barematutako en ondorengo beste merezimendu batzuk gehitu nahi dituela esan nahi du; horregatik, aipatutako atalei begira, parte hartu zuen lekualdatze-lehiaketan eskaerak aurkezteko epeak (2010eko abenduaren 15a, 2012ko urtarrilaren 28a, 2012ko azaroaren 23a, 2013ko abenduaren 21a, 2014ko azaroaren 25a, 2015eko abenduaren 21a, 2016ko azaroaren 28a, 2017ko abenduaren 13a, 2018ko azaroaren 27a, 2019ko abenduaren 19a 2020ko azaroaren 26a) bukatu zuenetik lekualdatze honetan eskaerak aurkezteko epeak bukatu arte lortutako merezimenduak aurkeztu behar ditu. Adierazitako atal edo



azpiatalen batean puntuen gehieneko lortu badu, ez ditu atal edo azpiatal horretan merezimendu berriak gehitu beharko.

** Atal horietan adierazitako datak baino lehenagoko beste merezimendu batzuk gehitu badira, ez dira barematu.

C).- “Barematze berria” aukera: I. eranskinen 2., 3.1., 3.2., 4.3., 5. eta 6. ataletako merezimenduak, parte hartu zuten azken lehiaketaren deia baino lehenagokoak badira merezimendu horiek, barematzea nahi dutenentzat edo parte hartu zuten azken lehiaketan aipatutako ataletan emandako barematzearekin ados ez daudenentzat da aukera hau. Atal guztietan merezimenduak justifikatzeko dokumentazio osoa aurkeztu behar dute, deialdian xedatutakoaren arabera, baloratzeko.

A.3.- Parte hartzeko datuak

KODEA	PARTE HARTZEKO MODALITATEEN AZALPENA
A	Behin betiko destinoa
B	Borondatezko eszedentea
C	Diziplina-espedientearen ebazpen irmoa
D	Sententzia edo errekurso-ebazpena betetzeagatik
E	Betetzen zuten behin betiko lanpostua kendu edo aldatzea
F	Behin-behineko destinoarekin itzultzeagatik
G	Nahitaezko eszedentziagatik
H	Zigorra bete ondorengo funtzio gabetzeagatik
I	Behin betiko izaeraz betetzen zenuen lanpostua galtzea ekarri duten antzerako arrazoiengatik
J	Inoiz behin betiko destinoa lortu ez duen behin-behineko izateagatik
K	Praktiketako funtzionarioak .

Lehenik eta behin, parte hartzen den modalitatearen kodea agertu behar du (koadroan ezarritakoan arabera). Modalitate horren arabera, haien datuak beteta agertu behar dira.

Ikastetxea, herria edota barrutia aukeratzeko lehentasunezko eskubideaz baliatuz gero, egiaztatu behar da ikastetxearen, herriaren eta barrutiaren datuak zuzenak diren. Espezialitateak eskatzeko idazkietan, agertu beharko dute espezialitatearen kodeak eta A, C edo D letrak, bernakuloari dagozkionak, adibidez:

Esp.	Hizkuntza	Adierazten da	Oharra
38	D		Zuzena
38		E	Ez da zuzena. Hizkuntzaren kodea falta da.

A.4.- Funtzionarioaren datuak eta merezimenduak

Maisu-maistren kidegoko funtzionarioen kasuan, lehiatzaileak aitortuta dituen espezialitate guztiak agertu behar dira, baita egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna ere; behin-behinekoa bada, gaur egun zerbitzuak ematen dituen lurralde historikoa ere bai. Praktiketako funtzionarioen kasuan, oposizioko espezialitatea besterik ez da agertuko.

Kidego guztien parte-hartzaileek (praktiketako funtzionarioek izan ezik, merezimenduen baremazioaren arabera ordenatzen ez direlako) egiaztatu beharko dute atal bakoitzerako emandako puntuazioak bat datozen zerbitzu-denborekin eta argudiatutako eta/edo aurkeztutako merezimenduekin. Praktiketako funtzionarioen kasuan, oposizioko espezialitatea besterik ez da agertuko.

A.5.- Lanpostuen eskaerak.

Fitxan aplikazio informatikoan altan eman zituen eskaera guztiak daudela eta benetan eskatutakoak direla egiaztatu beharko du parte-hartzaileak. Horretarako, kodeak banan-banan konprobatu beharko ditu.

Zuzenak ez diren eskaerak “Errorea” espresioarekin agertzen dira eskaera-lerro bakoitzaren eskuinaldean, eta **B** letrarekin bajaran emandako eskaerak.

A.5.1- Zuzenak ez diren eskaerak:

- Espezialitatea gaizki aukeratzeagatik :

Ez duten espezialitate bati dagokion kode oker bat sartu duten parte-hartzaileak.

Lehen behin betiko destinoa lortu ez duten eta 2007. urtetik aurrera sartzeko aukeratze-prozedurak gainditu dituzten parte-hartzaileek oposizioko espezialitatean parte hartu beharko dute derrigorrean; bestela, eskaera ez da zuzena.

Haiena ez den irakaskuntza-kidego bateko espezialitate bat emateko eskaera sartu duten parte-hartzaileak.

-Hizkuntza gaizki aukeratzeagatik:

Elebitasunaren kode oker bat edo egiaztatutako hizkuntz gaitasunari ez dagokion bat sartu duten parte-hartzaileak.

- Elebitasuna gaizki aukeratzeagatik:

Elebitasunaren kode oker bat, egiaztatutako hizkuntz gaitasunarekin bat ez datorrena, sartu duten edo elebitasunarekin bat ez datozen espezialitateak eskatu dituzten parte-hartzaileak: Euskara eta Literatura (052), Hizkuntzetako espezialitateak (Irakaskuntza Ertainetako 011, 012 edo Hizkuntza Eskola Ofizialen Kidegoko espezialitateak).

-Zentro gaizki aukeratzeagatik:

Ikastetxearen kodea gaizki sartu duten parte-hartzaileak, haiena ez den irakaskuntza-kidego batena izateagatik (adibidez: Irakaskuntza Ertainetako karrerako funtzionarioa izan eta HEOko zentroaren kodea sartzea).

-Bajan eman diren eskaerak:

Deialdiaren seigarren oinarriko 6. atalean ezarritako baldintza bete gabe Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi kurtsoak eskatzen dituzten parte-hartzaileak.

Eskaerak fitxan agertzeak **EZ** du adierazten baliagarri direnik, baizik eta eskaeran adierazitakoekin bat datozela. Zuzenak ez diren eskaerak "Errorea" espresioarekin agertzen dira eskaera-lerro bakoitzaren amaieran

A.5.2.- Herria edo barrutia aukeratzeko lehentasunezko eskubidearen modalitateari dagozkion eskaeretan, "DPL" siglak idatzi behar izan dira "lanpostu mota" atalean. Horrela egin ezean, parte-hartzaile horiei E modalitatetik (lehentasunezko eskubidearekin parte hartzea) kenduko zaizkie, S arrazoiarengatik (ez ditu DPL siglak idatzi lehentasunezko eskubidea duten lanpostuak identifikatzeko),.

Ez dute agertu behar espezialitatearen eta hizkuntzaren kodeek; **DPL** letrek besterik ez dute agertu behar.

B) ERREKLAMAZIOAK

Merezimenduen baremazioaren, eskaera okerrak zuzentzearen, zuzendu daitezkeen akatsak zuzentzearen eta abarren aurkako **erreklamazioak 2022ko otsailaren 4tik 17ra**, bihar barne, egin beharko dira Interneteko helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus>.

NANarekin eta pasahitzarekin identifikatu ondoren, Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze Lehiaketa / (Erreklamatu nahi dituzun atalei dagokien esteka aukeratu beharko duzu)



C) MEREZIMENDUEN BAREMOA (onartuen eta baremazioaren behi-behineko zerrendaren kontra erreklamazioa egin aurretik, kontuan izan beharreko informazioa)

C.1.- Merezimendu akademikoak

3.1.2. Masterra baloratuko da, baldin eta irakaskuntzako funtziora sartzeko eskatutakoa ez den eta 60 kreditu, gutxienez, ematen dituen kasuetan. Atal honetan ez zaio baloratu CAP/TED inongo parte-hartzaileri, haren irakaskuntza-kidegoa zein den alde batera utzita, ezta unibertsitate-titulu ofizial bat eskuratzea helburu duten doktoretzarako ikastaro monografiko ohiak ere

3.2.2. eta 3.2.3.- Lehen eta bigarren zikloko titulazioak

Bigarren lizentziatura, arkitektura edo ingeniarietza baten bigarren zikloko ikasketak baloratzeko, lortutako titulu guztiak aurkeztu beharko dira, Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Musika eta Arte Eszenikoetako Kidegoetara sartzeko baldintza izan zen lizentziatura barne, langileen Erregistroan jasota agertzen direnak salbu.

Bigarren lizentziatura titulua aurkeztuta, 3.2.3. atalean besterik ez da bigarren zikloko titulazio gisa zenbatuko.

Bigarren lizentziatura horren lehen zikloa 3.2.2. atalean zenbatzeko, ondorengoak egiaztatu beharko da:

- Lizentziatura horren lehen zikloko hiru kurtsoak egin diren.
- Lehen zikloak ez duen funtzio publikora sartzeko baldintza izan zen lehen lizentziatura lortzeko balio.

Egiaztapen hori egiteko, titulu guztien ziurtagiri akademikoak aurkeztu beharko dira; ziurtagiri akademiko horiek lizentziatura bakoitza osatzen duten kurtso guztietako irakasgai guztiak gainditu izana agertu beharko dute.

3.3. Araubide Bereziko Irakaskuntzen eta Lanbide Heziketaren titulazioak: Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako ziurtagiriak barematuko dira bakarrik atal honetan, ez baliokideak. Atal hau ofizioz zenbatzen da, Saileko tituluen erregistroan jasota eta gaurkotuta dagoen informazioaren arabera (hizkuntza bererako bi ziurtagiri aurkeztuz gero, parte-hartzaileak aurkezten duen maila goreneko titulazioa besterik ez da kontuan hartuko).

C.2.- Zuzendaritza-karguak (karrerako funtzionario lanetan jardun izana baloratuko da soilik)

Tutoretza-funtzioa 2006ko maiatzaren 24tik aurrera hartzen da kontuan, data horretan sartu baitzen LOE indarrean.



C.3.- Trebakuntza eta hobekuntza

5.1. Deialdi honen arabera, atal honetan ez zaio baloratu CAP/TED inongo parte-hartzailerik, haren irakaskuntza-kidegoa zein den alde batera utzita, ezta unibertsitate-titulu ofizial bat eskuratzea helburu duten doktoretzarako ikastaro monografiko ohiak ere.

C.4.- Beste merezimendu batzuk

6.6. atalak praktiken tutorizazioak "Gradu eta Masterraren" titulazio berriei egiten die espresuki erreferentzia. Ondorioz, ez dira atal honetan barematuko adierazitakoak ez diren beste titulazio akademiko batzuk eskuratzeko ikasketen praktiken beste tutoretza batzuk.

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZA

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 3a